

ORIENTAZIOA: MAPA ETA IPARRORRATZA

Mendiko jarduera
erdian, mapa atera
eta brujularen
laguntzaz zure
kokapena
ezagutzen al duzu?
Eta lainoa edota
eguraldi txarra bat-
batean agertuz
gero?



BIZKAIKO GOI MENDI ESKOLA Ikastaroa: orientazioa (mapa eta iparrorratza)



Sarrera

Orientazioa mendizale eta natura maite duen ororen behin betiko erreminta suposatzen du. Askotan ordea, hura gutxietsi eta gure buruan eta senean gehiegi sinestearen akatsa egiten dugu. Orientazio teknika modernoei esker gure ibilaldiak seguruagoak eta erosoak bihurtuko dira.



Helburuak

Ikastaro honen helburu nagusia mendiko orientazio teknika modernoetan trebatzea da; honekin batera, baita horretarako beharrezkoak diren tresna berezien ezagutza ere: brujula, altimetroa eta, noski, mapak. Nahiz eta gaur egun ez den batere komenigarria era honetako metodoak askoz teknikoagoa den GPS bezalako tresnengandik bereiztea, ikastaro honetan lehenengotan zentratuko gara bakarrik, horiekin ere erabateko autosufizientzia lortu arte.



Ikastaroaren edukiak

- Mendiko orientaziorako tresnen eta kontzeptuen ezagutza:
 - Oinarrizko materiala: mapa, brujula eta altimetroa.
 - Mapa mota ezberdinak eta eskalak.
 - Kuadrikulak: mota ezberdinak eta jatorria.
 - Google Eartharen aurkezpena.
- Kartografia eta orientazio ariketak:
 - Mendiko mapa nola irakurri (ikurrak, altuerak, formak, eskalak...).
 - Kokapen, norabide eta triangulazio ariketak.
- Orientazio ibilbideak: praktika errealak eta mendiko lana.

Egutegia

LEHENENGO EGUNA

Gela barruan (goizez)

- Kontzeptuen aurkezpena.
- Mapa ezberdinak, erliebearen formak eta maila bihurtzeko bereizteko oinarri teorikoa.
- Eskala erabilienak.
- Kuadrikulak: motak eta haien jatorria.
- Erabilgarritasuna. Koordinatu sistema ezberdinak.
- Burjula eta haren erabilera. Iparralde mota ezberdinak. Deklinazioa.
- Erliebe, norabide eta koordinatu sistemen ariketak.
- Erliebearen profilak.

Goizean ikusitakoaren inguruko ariketa praktikoak (arratsaldean)

Arratsaldean, goizean ikusitakoaren inguruko ariketak egingo ditugu Arnotegi edota Montefuerteko magaletan.

BIGARREN EGUNA

Egun osoa


- Aurreko egunean ikusitakoaren errebaso azkarra.
- Orientazio-ibilbidea Arnotegi/Pagasarri inguruan:
 - Inguruetako maparen banaketa.
 - Maparen interpretazioa.
 - Kokapena ezartzeko triangulazio ariketak.
 - Jarraitu beharreko norabideak. Norabide horiek mapetan islatu.
 - Puntuen arteko distantziak.
 - Ibilbide alternatiboak.

Beharrezko materiala

Mendi ertainetan ibiltzeko arropa aproposa. Gela barruko eta landa praktikak tartekatuko ditugun arren, inguru ezberdinetan ibiltzeko oinetako eta arropa erosoak ekartzea gomendatzen da (bigarren egunean batez ere).

Prezioak

Ikastaroa	Bizkaian federatua	Bizkaiko mendi taldeentzako prezioa	Bizkaitik kanpo federatua
Orientazioa	52,5 €	35 €	70 €



Alboan agertzen den maparen oinarria eta forma guztiak ulertzeko kapaza zara? Edozein kasutan ere, harrigarria da mapa baten gainean egin daitezkeen ariketa guztiak eta horien arabera atera ditzakegun ezagutzak.

Gutxieneko baldintzak

Sasoi onean eta menditik ibiltzeko ohiturarekin etortzea aholkatzen dugu.

Oharrak

Goi Mendi Eskolak badauka brujulak uzteko aukera. Hala ere nork berak daukana eramatea gomendatzen dugu.

-Tokiak: Bizkaiko Mendizale Federazioko egoitza. Martin Barua Picaza 27, 4. solairua. Bilbo. Kirol Etxearen eraikin berdinean.

- Ordutegiak: Bi egun (larunbata eta igandea).

Larunbata: 9:45-14:00 eta 15:30-19:00 (bazkaria Federazio azpiko Artekari tabernan egin ohi dugu).

Igandea: Larunbatean zehaztuko da (9:30-17:30 gutxi gorabehera).

- Topaketaren azken xehetasunak, ikastaroko zuzendariak ikastaroa egin eta aurreko astean argituko ditu.

Ikasleen maila edota inguruaren zein eguraldiaren baldintzen arabera, irakasleek eskubide osoa dute ikastaroaren gidioa aurretik abisatu gabe aldatzeko.

Kontu zenbakia

ES84 3035 0071 64 0710024655

OHARRA: Izen-ematea egiterakoan ikastaroa ordaindu behar da.

Prezioan sartuta:

Irakaslearen zerbitzuak.

Ikastaroaren txostena eta dokumentazioa.

Banakako materiala (ez izatekotan).

Preziotik kanpo:

Janaria.

Garraioa (behar izanez gero).

Ikastarorako taldea astebete lehenago itxita geratuko da.



FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
ESCUELA VIZCAÍNA DE ALTA MONTAÑA
BIZKAIKO GOI MENDI ESKOLA

Martin Barua Picaza 27, 4. solairua
48003 Bilbao

☎ 94 443 17 34

goimendieskola@bmf-fvm.org



Euskal Goimendi Eskola
Bizkaia

